

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GAZTERIAREN FORU ERAKUNDEA

**2020ko martxoaren 13ko hautatuen behin betiko zerrenda argitaratzeko ebazpena, Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoan hautaketa prozesurako deian, Gazteriaren Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoko Zerbitzu Orokorretako Administrazioa lanpostuan lan kontratadun langileak kontratatuzko, uztailaren 10eko 374/2018 Erabakian, zeinaren bidez Gazteriaren Foru Erakundearen 2018rako enplegu eskaintza publikoa onesten den, aurreikusitakoaren arabera**

Uztailaren 24ko Administrazio Kontseiluaren ebazpenaren bitartez onartu ziren Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoa arautzen duten oinarri orokorrak.

2019ko uztailaren 23n, Zerbitzu Orokorretako Administrazioa lanposturako onartutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaratzen da dagokien lantoki zehatza adieraziz, eta erreklamazioak aurkezteko hamar egun balioduneko epea ezarriz.

7.6.2 oinarri orokorrean ezarritakoaren arabera, onartutako izangaien behin-behineko zerrendaren aurka erreklamazioak aurkezteko epea amaitu eta aurkezten direnak ebatzi ondoren, Gazteriaren Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluaren Buruaren ebazpenaren bidez onartuko du hautatuen behin betiko zerrenda, bakoitzari dagokion lanpostuarekin, eta hogeit egun naturaleko epea irekiko da deialdian eskatzen diren gaitasun baldintzak eta betekizunak egiaztatuzko agiriak aurkezteko.

Aipaturiko erabakia 2019ko abenduaren 27 datarekin diktatu zen, hurrengo erlazioarekin:

IZENA	KODEA
GORGOJO TRANCÓN, BENITO	030106
PERIANES MORENO, MARIA JUNCAL	030207

2020ko otsailaren 27an, María Juncal Perianesek idazkia aurkeztu zuen, kontratazioari uko egiten ziola jakinarazteko. Hori dela eta puntuazio ordenaren araberako hurrengo hautagaia kontratatuzko proposamena egin zuen, 2020ko otsailaren 28ko ebazpenaren bidez, oinarri orokorren 8. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritz; hain zuzen, gainditutako izangaien 2019ko abenduaren 16ko behin betiko zerrendaren arabera, María Blanca Carreño Sanchezi zegokion.

2020ko martxoaren 12an, María Blanca Carreño Sánchezek idazkia aurkeztu du, kontratazioari uko egiten diola jakinarazteko. Hori dela eta puntuazio ordenaren araberako hurrengo hautagaia kontratatuzko proposamena egin behar da, oinarri orokorren 8. apartatuan ezarritakoarekin bat etorritz; hain zuzen, gainditutako izangaien 2019ko abenduaren 16ko behin betiko zerrendaren arabera, Ainitze Molinillo Ruiloperi dagokio.

Gazteriaren Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onartzen duen ekainaren 8ko Diputatuen Kontseiluaren 26/2010 Foru Dekretuaren 11.d) artikuluan xedatutakoaren bidez funtzio publikoaren gaitetan eskumena duen guztietan ezarritakoarekin bat etorritz.

**XEDATU DUT**

Lehenengoa. Hautatuaren behin betiko zerrenda argitaratzea, 030207 Zerbitzu Orokorretako Administraria lanpostuan, Gazteriaren Foru Erakundearen 2018ko enplegu eskaintza publikoan hautaketa prozesurako deian, Gazteriaren Foru Erakundea Arabako Foru Aldundiaren erakunde autonomoko lan kontratudun langileak kontratatzeko:

<b>IZENA</b>	<b>KODEA</b>
Molinillo Ruilope, Ainitze	030207

Bigarrena. Hogei eguneko epea irekitzea, Foru Agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengotik hasita, aukeratutako izangaiak 8. oinarri orokorrean zehazten diren agiriak aurkez ditzala.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoaren 13a

*Kultura eta Kirol diputatua*  
**ANA M. DEL VAL SANCHO**